

MARIA TUDOR ERREGIÑEA

Martin Lutero k bere tesiak agertu eta Aita Santuak kondenatu ebanean, laster asi ziran bere aurka katoliku-
en ekintzak, lenengo izkilludunenak eta gero berbazkoak.

Izkilludunen artean lenengo asi zana V Karlos enpera-
dorea izan zan, baiña ezin izan eban ezer lortu, Saxoni-
a ko Duke aukeratzailleak Lutero ri eta onen jokabideari
babesa emon eutsolako. II Felipe bere semeak jarraitu
eban ekintza ori.

Englandia n VIII Enrike erregeak sortu eban lenengo
Erroma tik banaketea eta gero protestanteen bidea.

II Felipe gaz batera Englandia n Maria Tudor agertu
zan, Erroma ko eleizearen alde. Au da gaurko gure
onurakorra.

...

London en jaio zan 1516n. urteko zezeillaren 18n.
egunean. Eta VIII Enrike ren et Aragoi ko Katalina ren
alabea zan. Aitak semea nai eban, ez alabea, eta aitaren
ametsak zapuztu ebazan bere jaiotzak.

Enrike k berak ez eban nai erlejiño aldaketarik, Erro-
matik banatzea eban naikoa baiña 1552n. urtean, bera il
eta ogebost urte geroago, artu eban Englandiak ostelari-
tza edo protestanteen erlejiñoa eta VI Eduardo il zanean,
onen arrebea eta VIII Enrike ren alabea zan Maria Tudor
gertatu zan erregiña.

Pozik entzun eban ori V Karlos enperadoreak, Englan-
dia Erroma ra biurtzeko bidea izan zeitekelako. Orre-
tarako Maria onen eskua eskatu eban bere seme Feli-
pe rentzat. Au alargun egoan bederatzi urtean eta Maria
erregiña amabi urte zarragoa zan eta ez ain ederra be.
Ba eukazan beste aukera oba batzuk be. Baiña II Felipe k
esan eban: "Ni seme esanekoa naz eta ez daukat beste
guraririk neure aitarena baiño". Felipe ez egoan Mari-
a gaz maiteminduta baiña Maria k pozik ikusten eban
ezkontza ori: Ortik sortuko zan semeak alkartuko eban
betiko Englandia Erroma ko Aita Santuagaz.

Ezkontza-ituna izenpetu zan London en eta ezkontzea
1554n. urteko urterrillaren 5n. egunean ospatu zan.

Guztien guraria zan Maria k seme bat izatea eta
ainbat lasterren. Orrelan Felipe biurtu zeitekean etorri
zan bidetik España ra.

1554n. urtean zabaldu zan erregiña aurdun egoala
eta Parlamentuari be esan jakon ori. Eskerrak emoteko
mezak be esan ziran. Parleментuak autarkiz aukeratu

eban Erroma gaz erlejiño bat egitea eta zismaren
azkena. Barriro Englandia Katolikua zan.

Maria anker, krudel, biurtu zan eta 273 protestante
ilteko be agindu eban. Baiña eguna eldu zan eta umea ez
zan jaio, Maria ez egoan aurdun. Albiste orrek amaika
amets zapuztu ebazan.

Bonner London eko gotzaiñak esan eutson Maria
Tudor erregiñeari, dana izan dala Jainkoaren zigorra,
erregiñeak gitxiegi zigortu ebazalako protestanteak.
Arrezkero Maria Tudor erregiñeak iru illebetea 50
protestante erre ebazan. Baiña umea izatearen itxaropena
galduta egoan.

Umerik ez zala sortzen ikusita, II Felipe k itzi eban
Englandia eta Flandes era joan zan. Sarritan ikeertzen
eban Maria Tudor. Erregiña semea sortzeko pozez
beterik egoan beti, baiña ez zan sortu Felipe beragaz bost
illebetea egon arren. Felipe k iges egin eban.

Maria k barriro esan eban aurdun egoala, baiña
ez eutsoen sinistu. Berak oraindiño itxaropena eukan
jainkoaren laguntzaz aurdun geratzeko, ori Eleizearen
onerako izango zalako. Bere testamentuan aurdun egoala
esan eban, baiña laster il zan eta aurrik ez zan agertu.
Englandia barriro zisma ra ta protestanteen federa bi
urtuko zan, erregiña aurdun geratzea eziña izan zalako.

OLAZAR tar Martin ek



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ